

DATU PERTSONALEN BABESA

Datu Pertsonalen Babesari buruzko oinarrizko informazioa

Arduraduna: Txori Txiki Musika Eskola Elkarteko Kooperatiba (aurrerantzean, “Zumaiako Musika eta Dantza Eskola” edo “eskola”)

Helburua: Eskolako administrazioa eta kudeaketa akademikoa gauzatzea, ekitaldiak modu egokian antolatzea, eskolaren jardura sustatzea eta bere legezko eginkizunak burutzea.

Legitimazioa: Dokumentu honetan deskribatutako tratamenduetarako oinarri juridikoak, datuak babesteari buruzko araudian ezarritakoaren arabera, hauek dira: (a) zerbitzuak kudeatzeko tratamenduaren beharra (RGPD 6.1.b art.), (b) legezko betebeharrak betetzea (RGPD 6.1.c art.), (c) eskolari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko tratamenduaren beharra (RGPD 6.1.e art.), (d) eskolak eduki dezakeen legezko interesa (RGPD 6.1.f art.) eta (e) interesdunaren adostasuna (RGPD 6.1.a art.).

Hartzaileak: datuak eskolarekin harreman zuzena duten hirugarrenei komunikatuak izan daitezke (banketxeak, eskudun administrazio publikoa, e.a.). Bestalde, ikasleen izen-abizenak eskolako tabloian jartzen diren zerrendetan azaldu daitezke. Era berean, ikaslearen notak, trebeziak, portaera eta bertaratze datuak honen legezko tutoreei komunikatuak izan daitezke.

Eskubideak: Interesdunak sarbide, zuzenketa, ezeztapen, mugaketa, transferentzia eta aurkaritza eskubideak erabil ditzake noiznahi. Era berean, emandako baimena edonoz ezeztatu daiteke, baita gai honi buruzko bestelako edozein eskari egin ere. Horretarako eskolara jo beharko da, ohiko bideak erabiliz. Interesdunak, eskariari emandako erabakiarekin ados ez badago edo erreklamazio bat jarri nahi badu, kontrol aginte eskudunera jo dezake (Datuak Babesteko Bulegoa - aepd.es).

Informazio zehatzagoa: Datuen babesari buruzko informazio zehatzagoa eskuratu nahi baduzu eskolan edo posta elektronikoko honen bitartez eskatu dezakezu (musikaeskola@zumaia.eus). Era berean edonoz irakurri dezakezu gure webgunean daukagun Pribatutasun Politika (<https://zumaiamusikaeskola.eus/privatutasun-politika/>).

Ikasleen irudiak tratatzeko baimen eskaera

Idatzi honen bidez, baimena eskatzen dizuegu zuen seme-alabak azaltzen diren argazki, audio edo bideoak argitaratu ahal izateko, beti ere musika-hezkuntza esparruan eta eskola honek xede duen jardueretan. Datuak eskolako webgune eta sare sozialetan, baita bestelako argitalpenetan (eskolaren menpekoak izan edo ez) edo komunikabideetan argitaratuak izan daitezke (bai paperez, bai formatu digitalean).

☐ BAI, baimena ematen dut.

☐ EZ, ez dut baimenik ematen.

Guraso / Legezko ordezkari (1)	Guraso / Legezko ordezkari (2)
Izen-Abizenak:	Izen-Abizenak:
NAN/AIZ:	NAN/AIZ:
Sinadura:	Sinadura:
Zumaian, 20...koaren(e)an	